

ESKOLA HIZTEGIA OINARRIZKO HIZTEGIA

Aurkezpena:

KARMEL aldizkari honek ematen didan aukera erabili nahi dut aspaldian euskararen eremuan jo eta ke lanean ari garen “Bostak Bat” taldeko kideok kaleratu berri dugun azken lanaren aurkezpen zabala egiteko.

Urteetan zehar irakurle eta zaletu finak izan zaituztegunok jaso izan dituzue “Bostak bat” lantaldeko kideok ADOREZ sortan argitara eman ditugun hiztegien berriak aldizkari honetan. Egin-eginean ere gure taldeak bide luzea egin du eta emaitza oparoak ekarri euskara-eremuan. Hori horrela, ezaguna dugu gure “ADOREZ HIZTEGIAK” marka Euskal Herri osoan.

Oraingo honetan, 1991n lehen aldiz kaleratu eta ikastola/eskola mailan hain harrera ona izan duen gure ESKOLA HIZTEGIA (ADOREZ 5) oinarrizko hiztegiaren argitalpen berriztatua aurkeztu nahi dizuet.

Hiztegi horrek nolako berrikuntzak izan dituen argiago ikusteko taldearen izenean liburuari egin nion sarrera bera eta bertan jasotzen den eskaintza transkribatuko dizuet bertan ageri baitira hiztegiaren zertzelada nagusiak.

ESKOLA HIZTEGIA euskaldun guztiei euskaraz bizitzera dei bat eginez hasten da eta, euskararen alde lanean jardun dugun guztioi eskaintzen zaigu:

*Mendez mende euskararen iraupena ahalbideratu duten gure arbasoei, Euskal Herriko hizkuntza izaten jarrai dezan beraren baliabideak ikertu eta premia berrietara egokitzen jardun izan dutenei, euskararen geroa egiteko ikastolak eta gauskolak sortu eta beraietan gogotsu lanean aritu izan direnei, euskarari etorkizuneko autobia indartsuak diren komunikabide desberdinetan lekua egiten dibardutenei, eta, batez ere, beren buruak alfabetatzen nahiz euskalduntzen ari diren haur, gazte, guraso, irakasle eta gainerako ekintzaile guztiei eskaintzen diegu **oinarrizko hiztegi** hau jarduera zail horretan lagungarri izango dutelakoan.*

Sarrerra:

Eskaintza hori egin ondoren, hiztegiaren nondik norakoak zehatzago azaltzen dizkigun honako sarrera hau irakur dezakegu:

Orain dela hamabi urte, ESKOLA HIZTEGIA lehen aldiz argitaratu genuenean, honako berba hauek jarri genituen aurrezpen-sarreran: “sei-zazpi urtetik hamaika-hamabira arteko haurrei begira jardun dugu, hauei, bitzetik hortzera nahiz idatziz eta irakurriz darabilten hizkuntzarako, ahalik eta lagungarririk egokiena eskaintzeko”.

Orduetik hona izugarrizko aurrerakuntza izan dugu euskararen eremu ezberdinetan. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiak jarduneari jarria duen lan-taldeari eta Euskaltzaindiak baturako onetsitako hitz-zerrendari esker bideratu da oinarrizko euskara batua, eta baita euskalki mailako zenbait hitzen idazkera ere.

Hiztegi gintzan ere hainbat ikerlan burutu dira. Eta hainbat hiztegi kaleratu ere bai. Gure taldeak ere, jo eta ke lanean jardunez, orduetik honako ibilbidean EUROPA HIZTEGIA-1993 (definitziorikoa hiztegi elebakarra), “DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA-1996

(2002.ean berriztatu eta gehitua)” (elebiduna), *SINONIMOEN HIZTEGLA - ANTONIMODUNA* (1999. urtean berriztatu eta gehitua), eta “3000 ESKOLA HIZTEGLA-2001” argitaratu ditu.

Azken urte hauetan, alabaina, butsune batzuk bete nahirik, zenbait ikerketa burutu izan ditugu lexikografia alorrean. Horien artean, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntzaz burutu eta hiztegi honetako sarreraren aukeraketa egiteko orduan, datu oso zehatzak eskaini dizkigun **euskararen oinarritzko bizkuntza baliabideen azterketa**¹ deritzan ikerlana.

¹ Honako iturriok aztertu eta erkatuz burutua: **Hiztegi elebakarrak**: *Eskola Hiztegia/Europa Hiztegia* (Bostak bat taldearena); *Lehen hiztegia* (Eskoriatzakoa/Vox); *Lehen hiztegia* (Harluxet); *Ikaslearen hiztegia* (Elhuyar); *Hiztegia osotzen* (anonimoa/Gizpuzkoakoa); *Euskal Hiztegia* (Ibon Sarasola); *Hiztegia* (euskara/euskara) (*Lur* argitaletxea). **Hiztegi elebidunak**: *3000 eskola hiztegia* (Bostak bat); *Diccionario escolar* (Elhuyar); *Oinarritzko hiztegia/diccionario básico* (Ibon Sarasola); *Lur Hiztegia* (txikia); *Labayru hiztegia*; *Euskara-Nederlandera* (M.H.Jansen: B6); *Euskara-errusiera* (Elhuyar). **Oinarritzko zerrendak**: *Euskara-ikasleen oinarritzko hiztegia* (700/2.000/3.500 hitz); *Atalase maila* (4.000 hitz); *Oinarritzko zerrenda*: (E.Jaur. 700/2.560 hitz); *A/B/C erduetako hasiera/erdiko zikloetako lexikoa* (3.600 hitz.); *Euskararen oinarritzko zerrenda* (HABE: 2.000 hitz); *Hitz egin metodoa* (3.900 hitz); *Zortzi urte arteko hiztegia*: (1.800 hitz); *Bizkaiko hitz erabilieneen zerrenda* (2.500 hitz); *Haurtzaindegirako zerrenda*: (2.700 hitz); *AEK-ren oinarritzko zerrenda* (2.200 hitz). **Euskarazko metodoak**: *Euskara hire lagun*: (1.050 hitz); *Euskalduntzen* (1.320 hitz); *Bakarka* (1.680 hitz); *Ikus eta ari* (1.800 hitz); *Euskara mailaka*; *Deustuko unibertsitateko metodoa*; *ICE-ko hiztegi irudiduna*; *Nozio espezifikokoak* (3.500); *Ikas txip*. **Inguruko bizkuntzetako erreferentziazko lanak**: Espainiako ministerioaren 1. ziklorako zerrenda (5.050 hitz)–“*El cofre de palabras*” (3.000 hitz); Espainiako ministerioak: 2. ziklorako zerrenda: (4.300 hitz); *Larousse: mini debutants* (5.400 hitz); *Mes 10.000 mots en couleurs*; *Vocabulario básico inglés* (1.000/4000 hitz); *Oxford pocket* (ikasleentzat) (8.500 hitz); *Diccionario Básico ilustrado*(euskara/gaztelania/ingeleza: 3.400 hitz (EGE). **Zenbait ikerketa bidezko zerrendak**: *Elizako lexiko bateratua* (4.600 hitz); *Lino Akesoloren lexikoa* (5.500 hitz); *Azkue hiztegiako hitz komunak* (7.000 hitz); *Haur/gazteen sei hiztegiatako irudietako hitzak* (4.500 hitz); *Bizkaiko lau herrietako lexikoa* (3.600 hitz).

Lan hori burutzeko, haur eta gazteentzat eginiko 14 hiztegitan (7 euskal hiztegi elebakar eta 7 hiztegi elebidun) ageri den lexikoa erkatu dugu, zer-nolako onarpena duten hitz ezberdinek jakiteko. Horrez gainera, euskara irakasteko erabili izan diren 9 metodotako hitzak nabiz oinarrizko euskara bila eginiko 11 ikerlanetako lexikoa ere erkatu dugu, zeintzuk izan diren gebien erabili izan diren hitzak (ezinbestekotzat jo izan direnak) jakiteko. Era berean, zeintzuk diren gure inguruko hizkuntzetan (gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez) oinarrizko kontzeptuak eta nolako erantzuna eman zaien euskaraz ere aztertu dugu.

Ikerketa sakon horren ondorioz, zeintzuk diren oinarrizko kontzeptuak eta zer nolako erantzuna eman zaien euskaraz jakin abal izan dugu, horrek abiabide sendoa eman digularik bonako hiztegi hau berriztatzeko.

Ikerketa horrek, jakina, argitaratua genuen ESKOLA HIZTEGIA egokiro zehaztera eraman gaitu. Horren ondorioz, aurreko argitalpenean jaso genituen hitz batzuk kanpoan geratu dira, eta lekua egin diegu han ez zetozen beste zenbait sarrerari. Bide batez kontuan izan ditugu, baita ere, urte hauetan sortu izan diren premia berriak, hala nola, internet erabiltzean sortutakoak.

Bestalde, aurreko argitalpenean esaten genuenaren haritik haur eta gazteen ingurumen osoa izan dugu kontuan, bots, familia, eskola, auzoa, lagunartea, komunikabideak, internet... Eremu horietan erabili obi diren hitzik beharrezkoenei lekua egiten saiatu gara, beti ere aipatu dugun euskararen oinarrizko hizkuntza baliabideen azterketak eskainitako datuak aurrez aurre izanik.

Hori horrela, onarpenik (hiztegietan eta jaso beharrezkotzat jotzen diren hitzak) eta maiztasunik (metodoetan eta erabilpen handikotzat jotzen direnak) zabalena duten sarrerei [] bat edo [**] bi erantsi diegu. [**] daramatenak edozein euskaldunek jakin beharreko hitzak dira. Gutxienezko mailakoak edo eskola-umeak 12 urtera heltzean jakin beharrekoak. [*]*

bakarra dakartenak oso erabilera handiko hitzak dira, eta ezinbestekoak euskara maila egokia (beharrezko ikasketak amaitzerakoan) lortzeko.

Aparteko lekua egin diegu euskalkiei ere. Aurreko argitalpean gure ikerketen arabera hedadura handia zuten euskalki-eremuko hitzak jaso genituen. Oraingo honetan, Euskaltzaindiaren euskara batuko lantaldeak aztertu eta erabilera zabalekotzat jo dituenak jaso ditugu, beti ere oinarrizko kontzeptuei dagozkienak.

Hiztegiaren egituraketari dagokionez hurrengo hauek kontuan hartu behar dira:

1. **Hitzak:** *definiziozko hiztegietan egin obi denez, sarre-
ren ondoan, ezaugarri gramatikalak, definizioak (adieraren
arabera zenbakiak ezarriz), adibideak, sinonimoak eta anto-
nimoak ezartzen dira.*

2. **Zeinu garrantzitsuak:** *Ezaugarriak aurkezterakoan
ikusten denez hitz batzuk ez dira definitzen sarrera ematen
zaien arren. Halakoetan "ikus"(ordezkoa) "h. (hobestekoa)" eta
"e. (baztertzekoa)" zeinuak jarri dira. Egin-eginean ere, 'ikus'
eta 'h.' duten sarrera gebienak euskalki mailakoak dira, eta de-
nak definituz gero hiztegi hau handiegia gertatuko litzateke.*

3. **Irudiak eta argazkiak:** *alor honek ez du nabarmen-
tzeko aldaketarik izan; aurreko kasuan bezala, laminetan ko-
lorez jantzirik, zuri-beltzez, eta, dagozkien bitzen ondoan, ba-
rreiaturik datoz.*

4. **Definizio eta adibideen ezaugarriak:** *halakoak es-
kaintzerakoan era erraza erabili nahi izan dugu eredu zuze-
neko esaldiak eskaintzen saiatuz. Zenbait adibide literaturako
hainbat testutatik jasotakoak edota esapide nabiz esaera zaba-
rrak dira. Edonola ere, definizioetan, zenbait kontzeptu tekni-
ko azaltzerakoan zehaztasuna ere kontuan izan dugu.
Halakoetan, parentesi barruan zein eremutakoak diren (Bot.,*

Zool., Anat...) eransten da, horrek bitzen esanahia ulertzen eta erabilera egokia egiten laguntzen duelako.

5. **Aditzak**: beti egin obi dena gaindituz eskemaz gainera **laguntzailearen aurkibide alfabetikoa** egin dugu erabiltzaileari kontsulta oso erraz egiteko bidea eskainiz. Sarreraren ondoan definizioa, subjektu egilea, objektua eta subjektu hartzailea bereiziz nabiz halakorik denean era trinkoaren eta laguntzailearen artean bereizketa eginez. Aditzean, adibideen ondoren bizkaierako eta zubererako formak ere jasotzen dira. Honela Euskal Herriko bi muturretako adizkerak jaso nahi izan dira.

Hiztegi hau eskola mundurako ez ezik euskara ikasten nabiz sakontzen ari direnentzat ere baliabiderik egokiena gertatuko dela uste dugu, **orain arte inoiz egin ez den eran jasotzen direlako euskarako hitzik beharrezkoenak eta erabilienak**.

Jarraian, hiztegia erabiltzerakoan kontuan izan behar diren seinuak biltzen ditu orrialde bakar batean. Halakoen artean batez ere hurrengoak ditugu nagusienak: [e./b./ikus/Sin./Ant./**/*]. Batez ere herrikuntza handia dugu [**] seinu bidez markatuta ezinbestekoak diren hitzak eskaintzea; beste hainbeste esan behar [*] seinu bakarra dutela markaturik datozen (ezinbestekoa ez badira ere oso erabilera handikoak) hitzei buruz.

Ezaugarriak:

Horren ostean ESKOLA HIZTEGIA honen ezaugarri nagusiak biltzen dira orrialde bakar batean, hiztegiaren ikuspegi zabalarekin aurrez aurre jarritz. Hona hemen orri horren edukia:

EZAUGARRI NAGUSIAK

1.1. HIZTEGIA

1. Hiztegi honen oinarri diren ESKOLA HIZTEGIA eta EUROPA HIZTEGIA **Euskaltzaindiak baturako dagoeneko**

erabakita dituen bitzen eta euskara batuko lan-taldeak proposatutako bitzen arabera orraztu dira.

2. Iazko urtean eginiko **euskararen oinarrizko bizkuntza baliabideen azterketak** eskainitako datuak kontuan hartuz egin da sarreren aukeraketa.

3. **Euskaltzaindiko lan-taldeak euskalkietarako proposatutako hitzak aztertu dira**, eta oinarrizko kontzeptuen kasuan hemen sartzeko aukeratu.

4. Azken urte hauetan hor-bemenka burutu izan diren beste **zenbait iturritako lexikoa** (batez ere teknika berriei dagokiena) ere **kontuan izan da**, **hitzik beharrezkoenak jasoz**.

5. Lehendik genituen **sinonimoak aztertu eta zebaztu dira**, eta **hainbat gebitu ere bai**.

6. Oraingo honetan **antonimoak ere eskaintzen dira**.

1.2. GRAMATIKA TXIKIA


1. Aurreko argitalpenean aurkeztutako gramatikako datuak berriro aztertu ditugu eta erdiko orrietan kolorezko paperean eskaini.

- Alfabetoa eta kontsonante sabaikarien grafia.
- Zenbakiak: arabiararak eta erromatararak.
- Zenbakien idazkera.
- Orduak euskaraz, datak idazteko erak eta lau eragiketak.
- Atzizkiak.

2. Lehendik genituen gramatika alorreko datuei beste berri batzuk (3000 **ESKOLA HIZTEGIA** egin genuenean prestatutakoa) erantsi dizkiegu:

- Puntuazio zeinuak eta letra larrien erabilera.
- Deklinabidearen laukiak.
- Haurren munduko zenbait hitz bereziren zerrenda laburra.

3. Aurrekoez gainera, oraingo honetan, oinarri-oinarrizko bitzen zerrenda, biztegi barruan [**] dutela sakabanatuta datozen hitzen zerrenda erantsi da.



1.3. ADITZ-JOKOA (zebaro berria)

1. *Euskal aditz-jokoaren aurkezpena eta zenbait gogoeta.*
2. *Euskal aditzaren eskemak: laguntzailearenak eta aditz trinkoarenak.*

3. *Euskal aditz laguntzailearen formarik erabilienak alfabetikoki, definizio adibide eta guzti.*

4. *Euskara batuko aditzaren ondoan bizkaierako eta zubererako formak eskaintzen dira.*
5. *Bizkaiera abiapuntutzat hartuz batura joateko zerrenda alfabetikoa.*

Laburpena:

Azkenik, hiztegi barruan jasotzen diren datuen laburpena eskeini nahi dizuet, horrela bat-bateko begiradaz bertan bil-tzen denaren berri zehatzak izan ditzazuen.

HIZTEGIA ZIFRETAN	
<i>Hitz-sarrerak:</i>	15.845
- definituak	14.450
- 'ikus' dutenak	732
- 'h.' dutenak	388
- 'e.' dutenak	276
Adierak	20.556
Adibideak	12.482
Sinonimoak	17.205
Antonimoak	4.045
Oinarri-oinarrizkoak[**]	1.074
Maiztasun handikoak [*]	1.945
ADITZ-FORMAK:	
- batukoak:	1.802
- bizkaierakoak:	2.290
- zubererakoak:	1.920
- adibideak:	2.010

Aurkeztu dizuegun ESKOLA HIZTEGIA metodologia hain zehatza erabiliz berriztatzeak eta bertan zenbait ikerketako emaitzak kontuan izateak baliabide paregabea eta erabilgarria bihurtzen dute euskara ikasten nahiz sakontzen ari direnentzat. Tresna aberasgarria izango dugu, baita ere, euskara bizi gare-nok ere ortografi alorreko zalantzak argitzeko nahiz zenbait hi-tzen adiera egokiro erabiltzen ikasteko.

Patxi Uribarren Leturiaga